

## **“DURANGO ERAIKITZEN, S.A.” UDALEKO ELKARTE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK**

### **I. IDAZPURUA**

#### **IZENDAPENA, XEDEA, HELBIDEA ETA IRAUNALDIA**

**1. ARTIKULUA.-** “DURANGO ERAIKITZEN S.A.” izenarekin Sozietate Anonimo bat eratzen da, eta berau arautzeko kontuan hartuko dira Estatutu hauetan eta indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen dena.

**2. ARTIKULUA.-** Elkartearen helburu soziala da:

- a) Durango Uriko ondare urbanizatua eta eraikia zaharberritzeko ekimen babestuak garatzea, Eusko Jaurlaritzako abenduaren 26ko 308/2000 Dekretuan bildutakoak, eta, bereziki, Durangoko Uri Historikoaren Zaharberritze Plana kudeatzea eta aurrera eramatea.
- b) Babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatua dutenak sustatzea eta eraikitzea. Halaber, lurzoru industrialak sustatzea eta kudeatzea Durango Uriaren eta bere herritarren onurarako.
- c) Ekonomia jardueretarako lurzorua sustatzea prezio egokian, baliabideak martxan jarri ahal izateko Durangarrentzako enplegua eta aberastasuna sortzeko.

**3. ARTIKULUA.-** Helbide soziala da: DURANGO, Lariz Torre kalea, 2.

**4. ARTIKULUA.-** Elkartearen iraunaldia mugagabea izango da. Bere egitekoak Merkataritza Erregistroan izena emandako egunean hasiko dira, Sozietate Anonimoen Legearen 7. eta 5. artikuluek ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

## **II. IDAZPURUA**

**5. ARTIKULUA.-** Elkarteren kapital soziala da: HIRUROGEI MILA ETA BOSTEHUN EURO (60.500 €). 121 AKZIO aterako dira, nominatiboak, bakoitza BOSTEHUN EUROKOA. Serie bakarra izango da, 1ean hasi eta 121ean amaituko dena.

Elkarreak akziodunen erregistro-liburua izango du, eta bertan akzioen jabetza eta akziodunen izen-deiturak eta helbidea zehaztuko dira eta, hala balegokio, izan daitezkeen transmisioak eta transmisioen gaineko eskubideen eraketa.

**6. ARTIKULUA.-** Akzioen tituluak taloi-liburuetan agertuko dira, eta gerenteak edo, hala balegokio, administrazio kontseiluko bi kidek izenpetuko dituzte.

Elkarreak, egoki baderitzo, eskumena du akzio bat baino gehiago biltzen dituzten tituluak ateratzeko.

**7. ARTIKULUA.-** Elkarreak obligazio izendunak edo obligazio eramaileak atera ditzake interes finko, amortizazio mugatu eta bere patrimonioaren bermearekin.

Akziodunen Batzar Nagusiari dagokio emisio, interes-tipo, amortizazio-epe eta era honetako kreditu-eragiketekin zerikusia duen guztiaren akordioak hartzea.

**8. ARTIKULUA.-** (edukirik gabe)

**9. ARTIKULUA.-** Akzioen titularrak bazkide bihurtzen dira, dagozkien eskubide eta betebeharrekin, eta Sozietate Anonimoen Legeak eta Estatutu hauek diotenarekin bat etorritz.

## **III. IDAZPURUA**

### **ELKARTEA GOBERNATZEKO ORGANOAK**

**10. ARTIKULUA.-** Akzionisten Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseilua izango dira Elkarrea arautu eta gobernatuko duten organoak.

Elkarteren ordezkapena administrazio kontseiluari dagokio.

## **IV. IDAZPURUA**

**11. ARTIKULUA.-** Batzar Nagusia da Elkarteren organo subiranoa, eta bere akordioak beste guztien gainetik izango dira.

Batzar Nagusia Udalbatzaren Osoko Bilkurak eratuko du.

**12. ARTIKULUA.-** Batzar Nagusiak honelakoxeak izango dira:

- a) **Ohikoa.** Urteko lehen sei hilabeteen barruan egingo dira gai hauek aztertzeko: kudeaketa soziala, aurreko urteko memoria, kontuak eta balantzea onartzeko, emaitzak banatzeko eta Batzarrari aurkeztu dakizkion bestelako gaiak aztertzeko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- b) **Ezohikoa.** Administrazio kontseiluak hala deritzon egingo da, edo Udalbatzar-kideen laurenak Lehendakariari idatziz zuzenduriko idatzi baten bidez hala eskatzen badute, aztergaiak zehaztu eta gero.
- c) **Unibertsala.** Udalbatzako kide guztiak bertan direnean eta, aho batez, Batzar Nagusia egitea erabakitzen badute, Batzarra egin egingo da eta edozein gai aztertu ahalko da.

**13. ARTIKULUA.-** Batzar Nagusi ohikoak zein ezohikoak deitzeko eta eratzeko epeak eta akordioak hartzeko erak Sozietate Anonimoen Legeak ezarritakoaren arabera egingo da.

## **V. IDAZPURUA**

### **ELKARTEAREN ADMINISTRAZIOA**

**14. ARTIKULUA.-** Elkartea administrazio kontseilu batek gobernatu, arautu eta ordezkatuko du Batzar Nagusiari dagozkion eskuduntzak tartean ez direnean. Administrazio kontseiluan bost eta hamaika arteko kide izango dira.

**15. ARTIKULUA.-** Elkarteko eta kontseiluko lehendakaria Udalbatzako bera izango da, hau da, alkatea.

Administrazio kontseiluak, hala balegokio, lehendakariordea izendatuko du kontseilarien artean.

Idazkaria ere Kontseiluak izendatuko du, eta kontseilari bat, funtzionario bat edo bestelakoren bat hautatua izan daiteke. Kontseilukoa ez bada, idazkariak ez du botorik izango.

Kontseiluari dagokio kontseilarien kargu-uzteak onartzea eta lehenengo Batzar Nagusia egin bitartean gerta daitezkeen hutsuneak betetzeko izendapenak egitea Udalbatzako kideen artean. Era berean, Idazkaria kontseiluko bokala ez den kasuetan, organo honek kargutik kendu dezake eta bere ordezkoak izendatu.

**16. ARTIKULUA.-** Kontseilari kargua lau urterako izango da, eta bertan behera geratuko da zinegotziaren agintaldia amaitzen denean.



**DURANGO  
URDAITZEN**

DURANGO  
Urdaitzen • Ayuntamiento

Nolanahi ere, Batzar Nagusiak, edozein unetan, kontseilariak kendu eta izendapen berriak egin ditzake.

**17. ARTIKULUA.-** Kontseilariak asistentzia dietak izan ditzakete edo/eta Batzar Nagusiak jarriko duen urte osoko ordainsaria.

**18. ARTIKULUA.-** Kontseilua batuko da Lehendakariak egoki deritzon edo kontseilarien heren batek hala eskatzen duenean.

**19. ARTIKULUA.-** Administrazio kontseiluak Elkartearen gobernatzeko ahalmen zabal eta osoenak izango ditu; baina, batez ere, hauexek izango dira bere egitekoak:

- a) Elkartearen ordezkatzeko gai administratibo, judizial, zibil, merkatal, laboral eta penaletan Estatuko Administrazioaren eta Herri Erakundearen aurrean eta, halaber, edozelako jurisdikzioaren aurrean, ohikoa, administrazioarena, administrazio-auziarekikoena, laborala, penala, e.a. Eta, edozein instantzia delarik ere, bere eskubideak defenditzeko era guztietako ekimenak onartzea eta gauzatzea, prokuradoreei dagozkien ahalak emanez eta abokatuak izendatuz Elkartearen ordezkatu eta defenditu dezaten Tribunal eta Erakundearen aurrean.
- b) Elkartearen negozioak gobernatzea negozioon gestioari etengabeko arreta eskainiz. Honetarako, Elkartearen gobernatzeko eta funtzionarazteko arauak ezarriko ditu zerbitzu tekniko, administratibo eta kudeaketakoak antolatuz, arautuz eta, hala balegokio, kontratatuz.
- c) Edozein eratako ekimen eta kontratuak egitea edozein eratako ondasun, zerbitzu edo eskubideren gainean. Halaber, Elkartearen xedea gauatzeko ekintzak eta ebaspenak burutzea, kontratu, paktu eta egoki iritzitako baldintzez baliatuz eta Elkartearen ondasunen gaineko hipotekak eta bestelako kargak edo eskubideak eratzea edo deuseztatzea. Era berean, ordainketa edo ordainketa barik, edozein eratako pribilegio edo eskubideri uko egitea eta kobrantzak eta ordainketak egitea. Halaber, Elkarteak eratze-bidean edo eratuta dauden beste enpresa edo elkarteetan parte hartu dezala erabaki dezake.
- d) Elkartearen izenpea edukitzea eta bere izenean jardutea edozein eratako banku operaziotan, kontu korranteak irekiz eta itxiz, berauek erabiliz eta kanbio-letretan igorle, onartzaile, abaldun, endosatzaile, endosu-hartzaile edo edukitzaile bezala parte hartuz eta, halaber, kredituak zabaltzeko, mailegu bermedunak edo berme gabeak hitzartu eta ezeztatu, fondo, errenta, kreditu edo baloreen transferentziak egin edozein giro-prozedura edo diru-mugimendu erabiliz, likidazio-kontuen saldoak onartu, gordailuak edo fidantzak jarri eta kendu, kontuak konpentsatu, kanbioak formalizatu, e.a. Aipatutako eragiketa guztiak Banco de España edo Banka Ofizialean egin daitezke eta, halaber, banku erakunde pribatuetan, Aurrezki Kutxetan eta Administrazio Autonomoaren edo Estatukoaren edozein erakundetan.



**DURANGO  
ERAIKITZEN**

DURANGO  
Udala • Ayuntamiento

- e) Elkaratearen fondoak nola erabili, non jarri eta non inbertitu zehaztea.
- f) Fondo berezi bat eratzeko proposamena egitea, Elkaratearen ondasunek izan ditzaketen arriskuei aurre egiteko. Gerta baitaiteke ondasunak bere osotasunean aseguratu barik egotea edo Elkarateak aseguru-erakundeekin hitzartutako polizetan parterren bat estali gabe izatea.
- g) Estatutu hauek ezartzen dutena kontuan hartuta, batzarretako deialdiak egitea, ohikoak zein ezohikoak, behar den moduan eta egunean. Gai-zerrenda aurkeztu eta dagozkion proposamenak egitea deitutako Batzarraren izaerarekin bat etorritz.
- h) Ohiko Batzar Nagusiaren deialdia egin baino lehen, aurreko abenduan itxitako urtealdiaren balantzea aurkeztea eta, honekin batera, galera-irabazien kontua eta, irabazirik balego, berauek banatzeko proposamena. Dokumentu hauen eta urtealdiko gertaera aipagarrien memoria ere aurkeztu beharko da.
- i) Apoderatuak izendatzea kasu guztietarako edo zenbaitzuetarako eta, hala balegokio, Elkaratearen pertsonal guztia izendatzea eta kalera botatzea, dagozkion soldatak eta sariak asigantuz.
- j) Egiteko guztiak edo hauetako batzuk delegatzea.
- k) Bere funtzionamendua arautzea Legeak edo Estatutu hauek aurreikusten ez duten guztirako.

Eta, orokorrean, administrazio kontseiluak Elkaratearen ahalmen eta atribuzio guztiak izango ditu, Legeak eta Estatutu hauek Akziodunen Batzar Nagusiari ematen dizkionak izan ezik.

**20. ARTIKULUA.-** Kontseiluaren akordioak gehiengoaren botoen bidez hartuko dira, nahiz eta Lehendakariak kalitatezko botoa izango duen berdinketa kasuetan ematen diren egoerei irtenbidea emateko.

**21. ARTIKULUA.-** Administrazio kontseiluaren eraketa, funtzionamendua eta gobernua Sozietate Anonimoen Legeak eta aplikagarri diren bestelako xedapenek ezarritakoa hartuko dute aintzat.

**22. ARTIKULUA.-** Administrazio kontseiluak kontseilu-kide bati delegatu ahal dizkio bere ahalmenak eta, hala gertatuko balitz, kontseilari-delegatu bezala jardungo luke.

Zuzendari Nagusi moduan jarduteko gerente bat edo gehiago izendatu ditzake, egokien deritzon kontratu-baldintza eta ahalmen-delegazioekin. Kontseilari-delegatu

kargua balego, zuzendari-gerentea edo gerentea, eta Elkarteko gainerako pertsonala, kontseilari-delegatu honen pean egongo lirateke.

**23. ARTIKULUA.-** Kontseilari-delegatuari edo gerenteei ezingo zaizkie inolaz ere delegatu e), f), g) h) eta k) ataletako ahalmenak, eta delega ezinak izango dira halaber, Elkartearen ondasunen gaineko hipotekak eta bestelako zerga eta eskubideak eratzea edota Elkarreak beste enpresa edo sozietateetan partehartzea, horixe ezartzen baitu Estatutu hauetako 19. artikuluko c) atalak.

## **VI. IDAZPURUA**

### **URTEALDIA, BALANTZEA, IRABAZIAK ETA ERRESERBAK**

**25. ARTIKULUA.-** Urtealdi naturala urte naturalarekin hasi eta amaituko da. Urteko balantzea urte bakoitzeko abenduaren hogeita hamaikan itxiko da eta Elkartearen diru-kontu guztiak bilduko ditu urtealdi horretan zehar. Salbuespen modura, lehen urtealdia hasiko da Elkarrea Merkataritza Erregistroan izena ematen duen egunean.

**25. ARTIKULUA.-** Urte bakoitzeko lehen lau hilabeteetan, Legeak eskaturiko baldintzekin batera, hauexek aurkeztu beharko dira: balantzeak, galera-irabazien kontua, irabazirik balego berauek banatzeko proposamena, erreserba-fondo bereziak, aurreikuspena eta auto-asegurua eta, hala iritziz gero, urtealdiko memoria. Kontu-azterlariak aurreko guztia aztertu eta txostena aurkeztuko dute dokumentuok Batzar Nagusiaren eskuetan jarri baino lehen.

**26. ARTIKULUA.-** Irabazi likidotzat hartuko dira Elkartearen negozioak ustiatzeagatik lortutako erabilpenak; baina, beti ere, gastu orokorrak, soldatak, interesak eta aktibo soziala osatzen duten edozein eratako material, makinaria eta ondasunen amortizazioa deduzitu eta gero.

**27. ARTIKULUA.-** Urtealdiko irabazi likidorik balego, erreserbarako asignazioa deduzitu eta gero, Batzar Nagusiak onartutako helburuetarako erabiliko dira, administrazio kontseiluak eginiko proposamena aintzat hartu eta gero.

## **VII. IDAZPURUA**

### **ELKARTEA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA**

**28. ARTIKULUA.-** Elkarrea deseginda geratuko da Sozietate Anonimoen Legeak ezartzen dituen kasuak ematen badira eta, halaber, diru-galerek kapital sozialaren erdia gainditzen badute.

Ezinezkoa balitz Elkartearen xedea betetzea edo komenigarriagoa balitz zerbitzuak beste era batera eskaintzea edo Udalaren epe luzerako plangintzek beste



DURANGO  
ERAIKITZEN

DURANGO  
Urdala • Ayuntamiento

lehentasun batzuk ezarriko balituzte, Elkartea deseginda geratuko litzateke, nahiz eta horretarako Batzar Nagusiko kideen bi herenen aldeko botoa behar izan.

Elkartearen likidazioa eta ondasunak banatzea indarrean dauden xedapenen eta Akziodunen Batzar Nagusiaren akordioen arabera egingo dira.

\*\*\*\*\*

\*\*\*\*\*